

Itzulpengintzako liburu-aldizkarien berri

KARLOS DEL OLMO

Ensayo de una historia de la traducción en España. José Francisco Ruiz Casanova. Cátedra, 2018.

Aldizkari honetako beste artikulu batean, itun muntadun bati erantzuten saiatu da Josu Zabaleta, jakinduria nonahitik dariola: «Zer ekarri dio itzulpengintzak euskarari?». Antzeko bide batetik, ia galdera bertsuari ihardetsi nahi dio, hain suertez, erreseina honetako liburu mardulean Ruiz Casanova irakasle ikertzaileak: «Zer izan da itzulpena gaztelaniarako eta zer ekarri dio?». Baina ikerlanaren edukia hain da zabala, non alorra ia ezin eutsizko eta ezin agortuzko bihurtzen den.

Horra zergatik gertatzen den noraezoko aukera irizpide estuak erabiltzea eta bibliografia bera ia ahitzeraino ikertzea, azken buruan, entsegua izateaz gain, ikas eta kontsulta eskuliburua ere delako, ez baititu alferrik jomugan jarri Itzulpengintza eta Interpretazioko nahiz Filologiako ikasleak,

hartzaile nagusizat jarri ere. Itzulpen ikasketak eta ikerketek azken urteetan eginiko ekarpenak biltzeaz gain, liburuak gorazarre egiten ere die alor horretan lan edo ikerketa gogoangarriak egin dituztenei.

Gai nagusia, itxuraz, erraz eta bakuna: itzulpenen bidez aztertzea Espainiako hizkuntzaren eta literaturaren historia. Baina, begi bistan dago, nekea handiagoa da itxura batean eman lezakeena baino. Zeri eta aurkibideari begiratu besterik ez dago. Nola-tan gertatuko da lantegi erraza honako gai hauek jorratzen dituen lan bat?

- Itzulpena Espainiako literatura historian: nola agertu ziren itzulpen jarduera eta teoria. Itzulpengintzaren jomuga eta kulturazko ingurunea.
- Erdi Aroa: garai hartako hizkuntza eta literatura. Toledoko Itzultzaile Eskola eta haren aurrekariak. XIII. mendeko itzulpengintza. Espainiako itzulpena XIV. mendean. XV. mendea:

Aurrehumanismoa, hizkuntza klasi-koak eta herri hizkuntzak.

- Urrezko Mendeak: hizkuntza eta literatura, Pizkundeko Humanismoa eta itzulpena. xvii. mendeko itzulpena.
- xviii. mendea: hizkuntza eta literatura. Teoria linguistikoak eta itzulpena. Hemezortzigarreneko literatura eta itzulpena.
- xix. mendea: hizkuntza eta literatura. Erromantizismoko itzulpena. xix. mendearen bigarren erdialdeko itzulpenak.
- xx. mendea: hizkuntza eta literatura. Itzulpenak Modernismotik 1939. urtea arte. xx. mendearen bigarren erdialdetik xxi. mendeko lehen hamarkadetara.
- xx. mendeko itzulpengintzaren gaineko gogoetak.
- Eta, jakina, itzultzaileen eta itzulitako egileen aurkibide onomastiko bana.

Kontakizun moduan ere irakur liteke, dena dela, entsegu denez gero, azken batean literatur itzulpena Espainian zer izan den azaltzen du eta, entziklopedia izateko asmorik gabe. Mamian, beste edozein literatur historiari legez, itzulpena gaztelaniaz nola agertu, garatu eta hedatu zen aztertzen du liburuak, eta, zertan esanik ez, ibilbide diakroniko bat egiten du (finean, gaztelaniaren eta beste hizkuntzen arteko harremana aztertzen du, literaturaren esparruan, batez ere). Egilearen arabera, Espainiako Itzulpengintzaren Historia paratzean, ezin gera daiteke ikertzailea lanak eta egileak zerren-

datze hutsean edo itzultzaileen jardueraren inguruko adierazpenetan.

Itzulpenak, ezinbestean, esku hartu behar du hura aplikatzen duten hizkuntzen eta literaturen gaineko jakiunde historikoan. Astakeria galanta lirudike lan itzulia askatzeak edo bereizteak, hain suertez, hartzaile dituzten hizkuntzaren eta literaturen historiari. Izan ere, itzulpengintzaren gaineko gogoetak eta garai batean itzulitako lanak edo harako itzultzaileen obra aztertzen dituztenek ez dute begi bistatik galdu ohi kultura hartzailearen egoera, ez eta dena delako itzulpen literarioak eragin dezakeena ere. Lan itzulia jatorrizkoaren kontrapuntua da, eta beste testualtasun batetik jarriko du kolokan. Itzultzaileak literatura egin behar du, aldaezina dena beste lur batera aldatuko badu.

Dena dela, egilearen arabera, itzulpenaz jardutean, erran komun asko ibiltzen dira bazterrik bazter, eta horrexek bihurtzen du zailago, hain zuzen ere, ikerlan historikoak kale ez egitea. Gogoeta, ohar edo iruzkin ez gutxi itzulpengintzan jardutearen ondorio huts dira (edo izan dira). Ezin, beraz, kategoriatzat jo edo formulazio estetiko nahiz itzulpen lege bihurtu. Ez bide dago, noski, itzulpengintza ikertzeko modu legitimo bazarrik. Menturaz, itzulpengintza aztertzeo erarik egokienetako bat izan daiteke hura literaturaren eta linguistikaren historiaren osagaitzat jotzea. Eta duela gutxi hasi dira azterketa mota hori kontsideratzen begira-kune hori harroin.

Testu handi eta klasikorik ez dugu itzulpengintzaren gainean, beste alor zenbaitetan direnen parekorik ez, bederik, nahiz eta horrek ez duen eragotzi itzulpenaren

historia kontatu beharra sortzerik. Batez ere, gaztelaniari dagokionez, XVIII. mendetik aurrera. Jakina, gauza bat da Penintsulako itzulpengintzaren historia egitea eta beste bat, zeharo bestelakoa, gaztelaniarako itzulpengintzak historian izan duen bilakera zedarritzea. XVIII. mendean Juan Plablo Forner-ek esan zuen moduan, «itzultzearen kontu hau ez da paper inprimatuaren trafikazaleentzako lanbidea (...) Idazlan bat itzultzea idazki horren izatea gorabehera ñimiñoeneraino adieraztean datza. Eta nolatan jardungo du horretan senik ez duenak, ez jada kopiatzeko, eskukatzen dituen edertasunak hautemateko ere?». Ezin hobeto jasotzen du Ilustrazioaren garaiko pentsamendu bat: literaturaren eta hizkuntzaren historia idatziko adierazpen guztien argitan ulertu beharra, arreta berezia emanda, aurki, itzulpenari. Azken buruan, itzulpengintzak handitasuna eransten dio «umezarora ozta-ozta gainditzen hasitako» hizkuntza bati. Bide horretatik jo zuen xx. mendeko Itzulpengintzaren Historian bidegile Valentín García Yebrak: itzulpengintza «norberaren berbetaren aberasbidea da».

Hortaz, egileak dioen moduan, XVIII. mendearen erdialdetik egon da pil-pilean gaztelaniatzko itzulpenaren historia jasotzeko beharrezana. Hiztegi edo entziklopediaz

janzen ahalegindu ziren ikertzaile batzuk itzulpengintzaren historiaren hasi-masiak. Aipagarri dira, ezin ukatu, Juan Antonio Pellicer y Saforcada-k eta Marcelino Menéndez Pelayo-k XVIII. eta XIX. mendeen artean ereindako haziak.

xx. mendean, bai filologiaren bai itzulpenaren inguruko ikerlan historikoak arduratu dira, hain suertez, egileak edo bertsoiak aztertzeaz nahiz itzulpenak konparatzeaz, sinkroniatik nahiz diakroniatik.

Entsegu hau aurreko erraldoien sorbalde-tan dabilela paratu du J.F. Ruiz Casanovak, modu sistematiko eta laburrean itzulpenak gaztelaniari zer eman dion aurkeztu guran. Ezer izatekotan, zirriborro, hasi-masi halako bat da, ez behin betiko «historia» (alea den handia eta mardula izanda ere). Gidallerrotzat darabil Humanismoaren irakaspen bat: itzulpena kultura baten kontzientzia linguistiko eta literarioaren osagaitzat eta harrointzat jotzea.

Ruiz Casanovak «Azken orria» izeneko atalean dienez, Pérez-Riojaren aipu bat gomutara ekarrita, «zeinahi itzulpen onen arazo askagaitza zera da: zaharkitzera kondenatuta egotea». Dena dela, Casanovaren iritziz, zer hoberik mintzagai darabilgun liburu baterako adinean sartzea, denboran dagokion ibilbide osoa bururatzea baino!

El fill del corrector / Arre, arre, corrector. Adrià Pujol Cruells, Rubén Martín Giráldez. Hurtado & Ortega Editores, 2018

Liburu bateko kredituetan, izenburuaren azpian, «Bella infiel en castellano de Rubén Martín Giráldez» agertzen bada, ez da buru apurra lar nekatu behar ondorioztatzeko ele biko liburu hau ez dela izango oso ohikoa (bidenabar, menturaz, itzulpen guztiek ez ote lukete iragarki hori eroan beharko lagun edo bidaide?). Eta ez da usantzakoa ez literatur lan modura, ez entsegu gisan, ez itzulpen moldera, ez eta zuzenketa manierara. Ederra da infidela delako, eta infidela, ederra delako. Argitaratzaileek sarreran diotenez, itzulpen bat agindu eta, ordainez, opari bat jaso zuten. Steinerrek idatzi zuenaren arabera, egile burutsu batengandik eta itzultzaile txolindu batengandik etekin eskasa lortuko bide du irakurleak. Halere, pozarren eman dute argitaratara *work in progress* edo *artifakt* berezi hau, mugarri historiko hau, irakurgai estrabiko modura, guztia ezer ez balitz bezala, testu elebidun bat argitaratu dute-eta, katalanez eta gaztelaniaz. Giráldez itzultzaile infidelak dioenez, testu bat ez da itzulgarri bik hala gura ez badute. Gauza doilorra izaten (omen) da itzultzea, beti, eta hartan dihardutenek puntu bat zikoizkeria eta puntu bat entelegurik eza bide dute. Eskuzabalek mespretxua ei diote langintza horri. Iriarteren alegia eza-gunak dioenez, «batzuek dituzte itzultzen lan famadunak / eta burrunzia bihurtzen ezpatak; / bestetuek txarrenak itzultzen, / eta ezpatatzat burrunziak saltzen». (XLIII. alegia, «Ezpata eta burrunzia»).

Itzultzaile infidelak «aurkezpentxo»an bere burua defendatzearen dionenaren arabera, infidelasunean bi alde izan ditu: jatorrizkoak behar zuen edertasun maila ematerik ez lortzea eta, kontraktotik, testuak beharra omen zuen zatieta, ardura eta grina eranstea. Nolatan ez izan infidela, Adrià Pujol-en testuak gordinkeriarekin maite jolasetan badihardu, espiritu galaia baino areago burlatia baldin badu? Itzultzaile infidelak lotsarik gabe aitortzen duenez, pasarterik uherrenak leuntzen eta soberakinak kentzen ahalegindu da, iritziak gortzeaz batera, jakinduriari dipsepsia kenduta. Zertan esanik ez, jatorrizkoa aldatzea dakar horrek, hizkuntza batean atsegin dena, menturaz, ez baita berdin atsegin gertatuko beste hizkuntzan. Hortaz, ez die zehatz-mehatz helden idazle katalanaren hitz eta pentsamenduei; bai, ordea, haren xedeari (ustez), irakurle hartzailearen gustura egokituta. Bestela esanda, «ez dut hainbeste errespetatu Pujol Cruells-ek idatzia, eskribitu beharko zuena baizik, eta ez hainbestean idatzi duen moduan, zentzu komunaren eta dotoreziaren arabera idaztea komeni zen gisara». Aitor du liburukoa ez dela itzulpen bat, berez itzulpen ariketa bat baino hobea den arren. Infidela ez litzateke ausartuko «itzulpen» bataiatzera lan hau. Azken buruan, baliokidetzaren idealak eta itzulpen «galerarenak» bost axola diote. Eta zer esango modulazio estilistikoaz, modulazio erretorikoaz, enfasia aldatzeaz, metaforak egokitzeaz, konpentsazioaz, funtzio semantikoak ordezkatzaz...? Pitz inporta; itzultzaile infidel honen aburuz, itzulpenak beti gorde behar du zer edo zer jatorrizkotik, bestela, lan eskerga, han-

diegia, litzatekeelako guztiz aldentzea egilearen nortasunetik.

Baina itzulpenak zintzotasuna ere eskatzen dio itzulzaile (infidel)ari, alde batera utzi behar baitu barreiadurari dagokiona, paperean forma materiari gabe jartzerik ez dagoenez gero, bata bestearen orde ezarri behar baitu, nahiz eta gauza asko bikain pentsaturik eta esanik egon. Eder infidelik ospetsuena (Perrot d'Ablancourt) Luziano-ren letratik desbideratu zen egile haren grazia ekartzearren, itxuran infidela izan zen, substantziari fidela izateagatik. Rubének dioenez, «Zergatik ez naiz drogaz mintzatu, drogazale izan gabe, hartaz txoriaren antzera mintzo banaiz? Ezbairik gabe —infidelaekin bat etorri beharrean gaude, jakina—, ez zait honelako nekarri gertatzen nire inspirazioz, nire etorritz, idaztea nola beste egile bat transkribatzea».

Zenbaitetan, ahokada bete jabego intelektual hartu eta leihotik bota du; bestetan, bere kolkotik asmatu ditu adabakiak, lasai eta dotore asko. «Irakurlearen agudotasun ilunaren esku uzten dut alderatze lana». Bestela adierazita, «bakezko aiztoa hobe ehi-za bandera bainoago».

Horrelako itzulzaile batek, dena dela, bere neurriko zapata du aita Plaren zuzentzaile zuen egile batengan. Zehaztasunaren izenean, zuzentzaile, adiskide, deboziotsu eta, lantzean behin, txofer ere izan zen Jordi, Adrià Pujolen aita. Plaren literatura eta bizitza aitaren galbahetik pasatuta jaso ditu idazleak, eta hori guztia eman beharrean egoten da itzulzaile infidela, Adriàk Katalunian eta katalanez idazteaz eta zuzentzeaz diharduenean. Oharren bidez, elkarrizketan aritzen dira itzulzailea eta egilea, bizirik

dauden egilearen eta itzulzailearen artean gutxitan gertatzen den baina maizago gertatu behar lukeen solasaldi liluragarri batean. Horixe da, gainera, liburu honek duen berezitasunetako bat, hain suertez. Bitxi hutsak dira (berbaren bi adieretan), zenbateraino eta, esate baterako, egileak, halako batean, itzulzaileari Lladó-ren *La paraula revessa. Estudi sobre la traducció dels joc de mots* liburua ezagutuko duelakoan adieraztera heltzeraino. Beste egile ohar batean, itzulzailea erne-erne dagoela aitortzen du egileak, jatorrizkoaren asmoa ezin hobeto jaso duelako. Orripeko oharretan eztabaida filologikoak ere izaten dituzte; adibidez, Montaigneren *lettreférit* berbaren esanguraz, ea egungo katalanean berbak sasijakitunaren adiera ironikoari eusten ote dion eta abar. Edo Joyceren *Ulyses* liburuko *Itaka* deritzon 17. kapituluari agertzen den latin jatorriko *irruent* eleaz (gaztelaniazko itzulpen batean, *irruente* eta beste batean *impetuosa* emana): Adriàren arabera, *El fill del corrector* liburuan *irruents* nahita idatzita dago, omenaldi moduan, bortitza adierazteko. Katalanezko *Ulisesen*, *menys irruent* agertzen da, bidena-bar esanda.

Beste ohar batean, egileak itzulzaileari leporatzen dio ausardia gehiegizko bat: idazleak blog batean idatzitako testu bat ohar batera itzuli eta eraman izana... iturria aipatu barik! Honela diotso: «Azken batean, ulertzen dut kortesia hori alde batera utzi izana; destajuan lan egiten duzu, eta bizi beharrean zaude».

Dena dela, ez bat ez bi, itzulzailea ere ez da batere lotsatzen ohar batean hau adieraztean: «Ezabatu egin dut paragrafo hori, deprimigarritzat eta ganorabakotzat jo du-

dalako. Berriro heldu diot perpausari benetan axola zaigun zatian, aitaren literaturazko elikagaian». Zalantzarik ez; esan bezala, elkarrenak dira. Egilearen oharrak, itzultzailearen oharrak eta... baita argitaratzaileen oharrak ere!, paragrafoak ezabatzeri gagozkiola, bederik: «Paragrafo osoari eutsi diogu, mamitsu eta hazkurritsu delako, baina katalanez baino ez, logura dela kausa».

Ezin iruzkin hau behar bezala paratu idazlearen ohar ironiko (baina «berdadero») bat lerrotara ekartzeko: «Nire liburua itzuli du berorrek. Bestela esanda, irakurleak ene liburua berorren itzulpena erosi du. Berorren beste lantxoan gainean berba egin beharrean badago (oharraren luzeak hala erakusten du, eta zenbakiak (64-66) ere agerian jartzen dute berorrek, itzuli baino, oharrak egiten dituela), beharbada hau ez da horretarako lekurik egokiena».

Zer dugu liburuan, hortaz? Hizkuntza literarioen arteko elkarrizketa bat, literatura unibertsaletik umorez beterik eginiko txango bat. Bai eta narratioari, itzulpengintzari eta zuzenketari berei buruzko gogoeta bat ere. Solasaldi bat, narratioaren edo itzulpenaren beraren ideien gainean. Eleberrizat ere har liteke lana, plazer badu irakurleak (atze-ko azaleko oharraren arabera, «Lehenengo eleberri katalan ona. Katalana balitz»).

Liburuak badu gibel solas muindun bat, Antoni Martí Monterde-rena. «Gaueko gibel solas bat. Gibel solas gibet solas batarako gibet solas bat, idaztean “gibeleptiko” utzi gaituena». Hartan dioenez, *Zuzentzailearen semea* edo *Itzultzailearen semea* (ezabatu beharrezko ez dena), gibet solasaren aurretik doan liburu hori, *Liburu irakurtze-zinen historia unibertsal handiaren* 2. kapi-

tuluan dagoke. Irudika genezake aitzinsolasez eginiko liburu bat? Alegia, bere buruari hastea galarazten dion liburu bat, noiz arte eta azken aitzinsolasean «Azken aitzinsolasa: eleberri hau idatzi nahi duenari» idatzi arte? Gogora dakar ohar batean egileak honela diotsola itzultzaileari: «Jabe gaitezen itzulpenaren laugarren pareta izenda genezakeena birrindu duzula». Eta aipatuaren erantzuna: «Kaka zaharra!». Martí-ren begi zolia konturatu da liburuan orripeko laugarren ohar mota ere agertzen dela liburu sailkaezin honetan: *N. del P.* deritzon bat, katalanez idatzia, bere burua autodidaktaz bataiatzen duen batek nahiz idazlea nahiz itzultzailea zoriontzeko egina, oso modu dibertigarrian aritzeagatik. Pazientziaren P-a ote?

Zer gelditu da liburuan Pla ondoren baina Plarendik abiatu barik idazten saiatzen den Empordàko narratzaile bategandik? Zer, lan autobiografiko samar hori itzultzen ahalegintzen den itzultzailearengandik? Zer, oso fidagarri ez den narratzaile batek modu lausoan gomutara ekarritako Pla «zuzendu» bategandik —beste ahots batzuek etengabe etendako narratzailea da, bestalde, aita (zuzentzailea) hiltzen duen narratzaile bat, aitari eskuizkribuak erakusteari uzten baitzion halako batean, editoreei edo hedabideei bidali aurretik—?

Katalanez eta gaztelaniaz batera eta eztabaida antzutik erditutako (eta itzulitako) liburu bat. Gogoeta bat, itzulpen barruko narratioaren ideiaz, itzultzaileak defentsa legitimoz idatzitako paragrafoekin.

Azken buruan, gauza jakina da itzultzaileak sablea irenstearen planta besterik ez duela egiten... trikimailua errepikatu nahi badu, ezipabere.